



Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa  
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - [www.donostia.org](http://www.donostia.org)  
20003 Donostia-San Sebastián

# **DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN OROITIDAZKIA**

IFK/C  
IF  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
8625n  
II2005  
-06

**2016**

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren epaitzen berri zabaltzea .....	3
3. Alde pertsonalak eta lan karga.....	12
4. Alde materialak eta informatikoak .....	14
5. Aurkeztutako erreklamazioak .....	14
6. Ebatzitako erreklamazioak.....	16
7. Ebazteke diren erreklamazioak .....	18
8. Epaitzak zein aldetarantz eman diren .....	19
9. Auzitegiaren irizpideak.....	23
10. Aurkeztutako gatazkei buruzko iruzkinak.....	24
11. Udal Auzitegi Ekonomiko Administrazioak konparatuz eginiko azterketa.....	25
12. Eskatutako irizpenak .....	28
13. Ondorioak.....	29

## 1. SARRERA

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboa errekurtsogileen eskubideak era eraginkorren babesteko printzipioaren adierazpena da, haren funtzionamenduaren independentziak ematen duen bermeagatik. Hala dago jasota bi dokumentutan: 57/2003 Legeko (2003ko abenduaren 16koa, Tokiko Gobernua eraberritzeko neurriei buruzkoa) zioen azalpenean eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Araudian.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak urtero aurkezten die memoria Udalbatzako kide guztiei. Memoria horretan aurreko ekitaldian egindako jardueren berri ematen da.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jarduerak biltzen dituen memoria Udalean aurkeztuko da, eta 2016. urtean egindako lanaren erregistroa jaso du.

2016eko abenduaren 31n idatzitako memorian 2016. urtean egindako lanari buruzko informazioa jaso da eta azken bost urte hauetako hainbat alderdik izan duten bilakaera alderatzeko grafikoak ere sartu dira, hala nola: 2011-2016 epean emandako epaitzek dakarten erabakiak, eta erreklamazioak izapidetzeak eta ebazpenak egiteak dakarren lan-karga.

Finantza Zuzendaritzako Lege Zerbitzuaren Buruaren postua hutsik izan da 2016ko zenbait hilabetetan. Funtzionario hari dagokio Epaitegiaren Idazkaritza. Halaber, Epaitegiari atxikitako administrari postu bat ere hutsik izan da eta, ondorioz, asko igarri zion organoren jardunak haren falta aldiari. Dezenteko atzerapena sortu zen, baina 2016ko martxoan bete zen hutsik geratu zen postu hura eta ari da egoera bere onera etortzen. . Jasotako grafikoetan ikus daitekeenez, 2016an bilakaera positiboa izan da; izan ere, eta gero ikusiko dugun

bezala, erreklamazio asko ebatzi dira. Hala erakusten dute *Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales* txosteneko datuek. Txosten hori Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek aurkeztu zuen, eta aipatutako datuak sartu dira, Donostiako Udalak haien berri izan dezan.

Auzitegiak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Donostiako Udaleko Araudiak xedatutakoari jarraituz, bere dituen eginkizunak gauzatzeko egin duen lana aztertu da. Funtsean, honako hauek oinarri dituzten erreklamazioak ezagutzeari eta ebazteari jarri zaio arreta batez ere: kudeaketako egintzak, likidaziokoak, zerga-bilketakoak eta zerga-ikuskaritzakoak; baita udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko sarreraren nahitaezko zerga-bilketakoak (bereziki Udal zehapenak jartzen dira, halakoetan) eta zerga-ordenantzen Proiektuari buruzko txostenekoak.

## **2. DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN EPAITZEN BERRI ZABALTZEA**

Zergen arloko berraztertze errekurtsoak ezesteko eman diren epaitzei dagokienez, zerga mota bakoitzean eman diren epaitzen berri eman da. Haien espezifikotasunaren arabera aukeratu dira epaitzak.

Orobat, eta interesdunek jakin dezaten, auzitegiaren epaitzek dakarten erabakia udalaren webgunean zabaltzeko asmoa dago. Erabaki horiek doktrina izango dira, gero.

### **Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.**

200. epaitza, gaitzestekoa, egitezko okerra: jatorrizko katastro balioa ez zegoen ondo zehaztuta eta hala ezarri da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Udal Zergak

Kudeatzeko Zerbitzuaren ebazpenean. Ebazpen horrek aldatzen du, 2001eko urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginarekin. Zergadunak ordaindutako OHZren gehiegizko kuota itzuli behar da, Katastroaren ebazpenean ondorioak atzera eragiten diren datatik sortutako zergaldiei dagokienez. Horrek guztiak preskripzioaren behin-behineko muga izango du.

201. epaitza, gaitzestekoa: erreklamatzailerak alta emanda dago Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, 1861.1 "*etxebizitza alokatzea*" epigrafean, 2013ko azaroaren 19an, CB gisa eta etxebizitza aldi baterako alokatzeko enpresa bitartekari batekin izenpetutako kontratua aurkeztu du (2014ko urtarrilaren 30ekoa). Hortaz, egiaztatu da higiezinari erreklarguaren salbuespena aplikatu behar zaiola, Ordenantzaren 23.b) artikulua araberak.

303. epaitza, gaitzestekoa, egitezko okerra: jatorrizko katastro balioa ez zegoen ondo zehaztuta eta hala ezarri da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren ebazpenean. Ebazpen horrek aldatzen du, 2001eko urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginarekin. Zergadunak ordaindutako OHZren gehiegizko kuota itzuli behar da, Katastroaren ebazpenean ondorioak atzera eragiten diren datatik sortutako zergaldiei dagokienez. Horrek guztiak preskripzioaren behin-behineko muga izango du.

304. epaitza, gaitzestekoa: ez da betetzen Zerga Ordenantzak hobaria aplikatzeko eskatutako baldintza; izan ere, familia ugariaren titularrak bi etxebizitzaren % 100aren titular dira.

336. epaitza, gaitzestekoa: salbuespenak, Eliza Katolikoaren funtsezko nukleoa osatzen duenari buruzkoak izan arren, honako hauek badira soilik aitortu daitezke: tenpluak, kaperak, gotzain eta apaizen egoitzak, kuriar bulegoetarako lokalak, seminarioak, funtsean etxe edo komentuetarako eraikinak. Eta zerga salbuespenen tratamendua arautzen duen oinarri orokorra aplikatuz, hala nola hau, mistoak, edo, gauza bera dena, erakunde jakin batzuei aitortuak, baina,

halaber, ondasunaren erabilerarekin edo ondasun horren errendimendu, produktu edo balioaren jatorriarekin lotutakoak, azken finean, zergaren xede direnak.

343. epaitza, gaitzestekoa: espedientean jasotzen da katastroko fitxa. Dokumentu horretan agertzen da higiezinaren erabilera "etxebizitza" dela. Higiezinaren titularrek egin behar dute katastroan agertzen diren datuak zuzentzeko eskaera, akatsen bat dagoela egiaztatzen badute, eta hori egin ezean, ezin dute pentsatu Udalak hori konponduko duenik.

379. epaitza, gaitzestekoa: 13. artikulua arabera, zergadun hauek dira zergaren subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, zergagaia osatzen duen eskubidearen titulartasuna dutenak, ordena honen arabera: a) Zergapeko ondasun higiezinaren edo horiekin lotutako zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakidaren jabeak. b) Zergapeko ondasun higiezinaren gaineko gozamen-eskubidearen titularrak. c) Zergapeko ondasun higiezinaren gaineko azalera-eskubidearen titularrak. d) Zergapeko ondasun higiezinaren jabeak. Higiezin horren gaineko azalera-eskubidearen titular erreklamatzailerik dagokienez, zergapeko izaera dagokie, arestian aipatutako araudian ezarritako ordenaren arabera.

380. epaitza, gaitzestekoa: ez da betetzen Zerga Ordenantzak hobaria aplikatzeko eskatutako baldintza; izan ere, familia ugariaren titularrak bi etxebizitzaren % 100ren titular dira.

386. epaitza, onartezina: izapidetzekoak ez diren egintzetako ordezkartzaren egiaztapena, 2002ko uztailaren 19an Auzitegi Gorenak esandako moduan, berme bat da, eta hori kontuan ez hartzeak jarduna baliogabetuko luke ezinbestean; izan ere, behar bezala ez egiaztatzearen ondorioz, legezkotasuna faltako da, erreklamazioaren funtsezko elementua, alegia. Hortaz, erreklamazioak ez du zentzurik, ez dagoelako alderdi errekurtsogilerik.

### **Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga**

204. epaitza, gaitzestekoa: jurisprudentziako doktrinak aukera ematen du jatorrizko likidaziori kontra egiteko, premiamendu prozeduran agindutako egintzak aurkaratuz, haren erabateko deuseztasun kausa bat baldin badago. Hala ere, Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak ibilgailuen titulartasuna zergapetzen du, baldin eta ez badaude baja emanda dagokien erregistro publikoetan; zirkulazio baimenean ibilgailuaren titular gisa agertzen dena izango da subjektu pasiboa. Titularra hilez gero, haren oinordekoei dagokie, Kode Zibilaren 661. artikulua araberan, Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Erregistroan ibilgailuari eta haren titulartasunari eragiten dioten aldaketa guztiak jakinarazteko betebeharra. Oinordekoek Trafikoko erregistroaren titulartasun aldaketa jakinarazi ez dutenez, ezin dezakete pentsa udal administrazioak badakiela ibilgailuaren titulartasuna aldatu egin dela aurreko titularra hiltzeagatik.

255. epaitza, gaitzestekoa: jurisprudentziako doktrinak aukera ematen du jatorrizko likidazioari kontra egiteko, premiamendu prozeduran agindutako egintzak aurkaratuz, haren erabateko deuseztasun kausa baldin badago. Hala ere, Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak ibilgailuen titulartasuna zergapetzen du, baldin eta ez badaude baja emanda dagokien erregistro publikoetan; zirkulazio baimenean ibilgailuaren titular gisa agertzen dena izango da subjektu pasiboa. Udaltzaingoari ibilgailua lapurtu zutela jakinarazi arren, gertakaria jazo eta hiru urte ondoren, salaketa ez denez igorri Trafiko Buruzagitzara eginiko behin-behineko baja eskaerarekin batera, ibilgailuaren titularrak ezin du pentsatu udal administrazioak gertatutako aldaketaren berri duenik, baldin eta ez bazaio jarraitu Trafikoko araudiak eskatutako izapideari.

### **Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga.**

339. epaitza, onartzekoa: erreklamatzailleak egiaztatu du eraikinaren elementu komunak direla, lanak egin diren terrazen jabekidetzara arauak betez. Eginiko gainerako lanek patioko fatxadei eta eraikinaren estalkiari eragiten diete. Eraikinak 10 urte baino gehiago ditu; hortaz, lan hauei aplikatu beharreko zerga mota % 0,25ekoa da, errekurtsogileak alegatzen duen moduan. Horrenbestez, argi dago espedientean agertzen diren datuetan oinarrituta likidazioa baliogabea dela eta adierazpen hori edozein unetan egin daitekeela.

381. epaitza, onartzekoa: 6. artikulua onartzen du zerga ordaintzetik salbuetsita dagoela zernahi eraikuntza, instalazio edo obra, Erligio Ordenen edo Kongregazioen, Bizialdi Kontsakratutako Erakundeen, eta haien Probintzien eta Etxeen jabeek egiten badituzte. Komunitate erreklamatzailleak egiaztatu du Erligio Erakundeen Erregistroan izena emanda dagoela eta obraren jabea dela (nahitaezko obra lizentzia eskatu zuen horretarako); hortaz, Ordenantzan aurreikusitako salbuespena aitortu behar da.

382. epaitza, onartzekoa: 6. artikulua onartzen du zerga ordaintzetik salbuetsita daudela zernahi eraikuntza, instalazio edo obra egiten dutenak, baldin eta jabeak toki erakundeak badira eta, zerga hau ordaintzea egokitu arren, obra hidraulikoak edo herrien eta uren saneamendua egiteko badira, nahiz eta horien gestioa erakunde autonomo batek egin, eta inbertsio edo artapen lanak izan. Salbuespen hau izateko, bi betebeharrak bete behar dira: bata, objektiboa, kasu honetan, eraikuntza, instalazio edo obra zuzenean obra hidraulikoak edo herrien eta uren saneamendua egiteko izatea; bestea, aldiz, subjektiboa, eta eztabaida sortzen duena, obraren jabea lurraldeko administrazio publiko bat izateari buruzkoa. Arauak adierazten du eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak hartuko dituela berau gauzatzeko gastuak edo kostua bere gain. Kasu honetan, XX Uren Mankomunitateak eskatu du obrak egiteko dagokion



lizentzia, bere kudeaketa publikoko sozietatearen bitartez, eta bere inbertsio planen barruan sartu dagoen proiektua finantzatzen du.

### **Gainbalioaren gaineko Zerga.**

251. epaitza, gaitzestekoa: Udalak, Ordenantzan aurreikusitakoaren arabera, Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioaren jardunbidea egokitu behar du, Higiezinaren gaineko zergaren zerga oinarriarekin bat etor dadin.

252. epaitza, gaitzestekoa: Udalak, Ordenantzan aurreikusitakoaren arabera, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioaren jardunbidea egokitu behar du, Higiezinaren gaineko zergaren zerga oinarriarekin bat etor dadin.

253. epaitza, gaitzestekoa: Udalak, Ordenantzan aurreikusitakoaren arabera, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioaren jardunbidea egokitu behar du, Higiezinaren gaineko zergaren zerga oinarriarekin bat etor dadin.

299. epaitza, gaitzestekoa: zergadunek berariaz adierazi behar diote zein egoitza duten zerga administrazioari. Udal honetan notarioak aurkeztutako dohaintza eskrituraren kopia soilean, Ordenantzako 17.2 artikuluan aurreikusitako izapidetzearekin bat etorrira, aitortpena-likidazioa egiteko ez dira agertzen erantsita dohaintzaren onarpen eskritura eta Foru Aldundiari aurkeztutako Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren 671. ereduaren. Hortaz, ezin da ulertu erreklamatzailerak bere zerga egoitza berria jakinarazi ziola Udalari, dohaintza eskritura horretan dohaintza emailearen egoitza soilik agertzen delako, ez dohaintza hartzailearena. Era berean, dohaintza hartzaileak ez zion aurkeztu zerga egoitza aldatu izanaren bestelako adierazpenik edo autolikidaziorik Udalari; hortaz, Zergen Foru Arau Orokorraren 48.3 artikulua aitortutako eskumena baliatuz, Udalak zuzen ulertu zuen zergapekoaren egoitza orain erreklamatzailerak titular gisa ageri den higiezinaren kokagunea dela.

300. epaitza, zati batean gaitzestekoa: jabaria mugatzen duten benetako gozamen eskubideak eratzean eta transmititzean, eranskinean jasotako urteko ehunekoak aplikatuko dira aipatutako eskubideen balioaren gainean, horiek Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako finkatutako arauak aplikatuz kalkulatu ondoren. Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren doktrinari jarraikiz, orduko salneurriaren gain azalera eskubidea eratu zen unean inolako akordiorik ez zegoenez, baina etxebizitza horretan aplikatzekoak zirenez Euskal Autonomia Erkidegoarekin adostutako babes ofizialeko etxebizitzetara dagozkien onurak, salneurri hori ezartzeko, bidezkoa da Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraio sailburuaren 2010eko azaroaren 3ko Agindura jotzea (babes ofizialeko etxebizitzetara gehieneko salneurriak zehazteari buruzkoa). Azalera eskubidea duten etxebizitzetara gehieneko salneurria kalkulatzeko, arauak kontuan hartzen du aldi baterako eskubide horren balioa eta, horretarako, taula bat eransten du, non esleitu daitekeen hasierako balioa eskualdaketen uneko balio eguneratua izango baita.

305. epaitza, onartzekoa: jasota dagoenez, AA etxebizitza irabazpidezkoen eta oinordetzaren ordainketa gisa esleitu zen; finka horren gehigarriak (garajea eta trastelekua) irabazpidezko gisa esleitu ziren, eta BB etxebizitza, irabazpidezkoen ordainketa gisa, gehi 0,25 oinordetza gisa. Egiten den likidazio berrian, % 95eko hobaria aplikatu beharko da AA finkaren ehunekoaren eskualdaketatik eta % 50ekoa, aldiz, BB finkaren 0,25a eskualdatzeetatik.

383. epaitza, onartzekoa: erakundeak ziurtatutakoaren arabera, ongintzara bideratu da zergapetutako finkaren salmentaren emaitza osoa.

### **Trakzio Mekanikoko Ibilgailuak Aparkatzeagatiko Tasa**

254. epaitza, gaitzestekoa: Zerga Ordenantzaren 9. artikulua arabera, emandako baimena atzera botatzen denean eta bereizgarria itzultzen denean,

kuotaren zenbatekoa seihileko naturaletan hainbanatuko da. Erreklamatzailerak 2014ko uztailaren 8an itzuli zuen TAO bereizgarria; hau da, urteko bigarren seihilekoan. Beraz, ez da bidezkoa kuota hainbanatzea.

### **Jabaria Okupatzeagatiko Tasa**

340. epaitza, gaitzestekoa: erreklamatzailerak ez du alegatzen araua gaizki aplikatu denik, baizik eta alegatutako kalte-galera araua hertsiki betetzearen ondorio dela. Gertakari hori ezin zaio araua aplikatzen duen organoari egotzi, arauzko aurreikuspen jakin horri baizik. Horregatik, eta auzitegi ekonomiko-administratiboei ez zaienez esleitu zerga arauen bidezkotasuna edo legezkotasuna auzitan jartzeko eskumenik, ezta arauaren aurkako zeharkako errekurtsu bidez ere, Auzitegi honek nahitaez aplikatu eta errespetatu behar ditu arauak indarrean jarraitu bitartean, eta zorrotz betetzen direla zaindu behar du bere azterketapean jartzen diren administrazio egintzetan.

385. epaitza, gaitzestekoa: lurzatiaren titulartasunari buruzko informazio eskaera ez da preskripzioa eteten duen egintzatzat hartzen; izan ere, edukiak ez du ondorioztatzera ematen interesdunak helburu hori zuenik. Hark lursailaren titulartasuna argitu dadila eskatzen du soilik eta, hala badagokio, Udalak bere gain har dezala hori mantentzeko lana. Ez da eskatzen, ezta zeharka ere, likidazioa berrikustea eta bidezkoak ez diren diru sarrerak itzultzeari ekitea.

### **Ur eta Zabor Tasa**

337. epaitza, gaitzestekoa: Ordenantzaren arabera, zerga ondorioetarako zenbatu egiten da establezimendu edo lokal nagusiari funtzionalki lotutako bulegoen azalera, metro koadrotan, baldin eta biak higiezin berean edo higiezin mugakideetan badaude. Kasu honetan, saltokia eta biltegia higiezin berean daude eta azken hori saltokira lotuta dago funtzionalki.

338. epaitza, gaitzestekoa: ura zer-nola erabiltzen den, etxeko erabilerako kontsumo gisa edo etxekoak ez diren erabileretako kontsumo gisa sailkatuko da ur hornidura, eta azken horien artean sartzen dira ureztatzeko eta finka partikularretako igerilekuetarako kontsumoak. Erreklamazioaren xede diren ur zerbitzuaren prestazioagatiko tasa ordainagiriak Erregelamenduaren 91. artikuluan jasotako ahalmenari jarraikiz likidatu dira (iruzurrezko likidazioa): *"behar ez bezala erabilitako uraren zenbatekoa Uren Udal Zerbitzuaren alde likidatuko da, kontsumoari aplikatuz urari ematen ari zaion benetako erabilerari unean-unean dagokion tarifaren eta, aldi jakin horretan, kontratatutako erabileran oinarrituz aplikatu zaionaren arteko aldea."* Ezin denez ezagutu benetako erabilera, Uren Zerbitzuak Erregelamendu beraren 79. artikulua aplikatu du: *"kontagailuaren emari nominalari hileko hogeita hamar ordurako dagokion kontsumoa fakturatuko da"*.

384. epaitza, gaitzestekoa: Ordenantzaren 12.1 artikulua adierazitakoaren arabera, *"bajek formulatu eta hurrengo hiruhilekoaren lehen egunetik aurrera eragingo dituzte ondorioak"*, beraz, baja ekainaren 30ean gauzatu zenez, hirugarren hiruhilekotik aurrera eragin zituen ondorioak.

### **Ekonomia Jardueren gaineko Zerga.**

342. epaitza, gaitzestekoa: Ekonomia jardueren gaineko zergaren testu bateginak 12.1 artikuluan adierazten du udalerriek zilegi izango dutela 2/997 Foru Arauan erregulatutako hobariak aplikatzea. Hortaz, interesdunak erreklamaturako hobaria aplikatzeko, Udalak aukera hori onartu behar du bere Zerga Ordenantzaren, eta aplikazioa Zerga Ordenantzaren bertan ezarritako baldintzen arabera egingo da. Ekonomia jardueren gaineko zerga udalerririk honetan arautzen duen Zerga Ordenantzaren, gehienez ere % 50eko ehunekoa aurreikusten da, foru araudiarekin bat.

### 3. ALDE PERTSONALAK ETA LAN KARGA


Auzitegiko kideak Udaletik kanpokoak eta independenteak dira: Javier Herrero Aparicio, auzitegiko buru; eta Sofia Arana Landin eta María Teresa Amunarriz Yeregui, auzitegiko kide soil. Beraz, argi dago auzitegiak funtzionamendu independentea duela.

Auzitegiko Idazkaritzari atxikitako langile funtzionarioak direla eta, Ondare eta kontratazio Zerbitzuan lan egiten duten funtzionario hauek dira: administrari bat, lanaldi osoan, monitorizatutako espedienteen arduraduna (gaur egun hutsik), eta Zerbitzu burua (Auzitegiko idazkaria).


Zerbitzuburuak ondare eta kontratazio gaietan jarduten duenez, Epaimahaiarekiko bilerak hilerokoak dira orain.

Auzitegiaren lan-karga auzitegiko idazkaritzak darama. Urte hauetako guztietako maila bertsuan dirau lanak. Izan ere, lan propioak ez ezik (erreklamazioak izapidetzea, adibidez), epaitza guztiak idatzi ere egiten dira, baita zerga-ordenantzak aldatzeko proiektuei buruzko txostenak ere. Hileroko saio bakoitzerako zortzi zerga epaitza prestatu dira, eta gainerakoak trafiko isunak betearazteko bideari buruzko gaiak dira..

Donostiako erreklamazio ekonomiko administratiboak ebazteko araudiaren 36. artikulua sei hilabeteko gehieneko epea finkatu du erreklamazioak ebazteko, eta indarrean dagoen Zergen Foru Arau Orokorrak prozedura horretarako gehienez urtebeteko epea ezarri du.



IFK/C  
IF  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
8625n  
I12005  
-06



#### **4. ALDE MATERIALAK ETA INFORMATIKOAK**

Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren egoitzak Udaletxean jarraitzen du, eta bertan egiten dira hamabostean behingo bilerak.

Auzitegiko kideek ordenagailutik eskura ditzakete zirkulazioko zehapenen erreklamazioen espediente osoak.

Aurka egiteko bide hau erabili nahi dutenek paperean aurkeztu behar dituzte erreklamazioak, arautegiko 26.3 artikuluan zehazturikoari jarraituz; halaxe izango da, harik eta informatikako eta informazioko baliabide egokiak garatzen diren arte (erreklamazio ekonomiko administratiboak bide telematikoz aurkezteari buruz Zergen Lege Orokorra garatzeko emandako EHA/2784/2009 Aginduari men eginez). Ordura arte, erreklamazioak paperean aurkezteko prozedura mantenduko da, arautegiko 26.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Isun Zerbitzuak egingo ditu espedienteak.

Auzitegiari buruz udal webgunean ageri den informazioari dagokionez, honako hauxe da: erreklamazioak egiteko jarraibideak, erreklamazioetan aplikatu beharreko arautegia, eta urtez urteko oroitidazkiak.

#### **5. AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.a) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1. artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio «*udal eskumenekoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarreraren kudeaketa, kitapen,*

*bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea».*

Administrazioarekiko diru-erreklamazio horien garrantzia, honetan datza: interesatuek gero bide judizialera iristeko behar duten tresna dela.

2016an, Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, ondoren zehaztuko ditugun erreklamazio hauek sartu dira. Kopuruaren, erreklamaturako kontzeptuen eta aurkezte-dataren arabera sailkatu ditugu.

<b>2016an aurkeztutako erreklamazioak</b>	
Zergak	83
Zehapeneko bilketa	339
Zergak ez diren beste kontzeptu batzuk	3
<b>Guztira</b>	<b>425</b>

<b>Zergak</b>	
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	15
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	6
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	3
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	5
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	32
Zerbitzu-Tasa	15
TAO tasa	1
Jabariaren tasa	6
<b>Guztira</b>	<b>83</b>



<b>Zehapenetako bilketa</b>	
Zirkulazioko zehapenak	333
Gizabideko zehapenak	13
Ingurumeneko zehapena	1
Beste zehapenak	2
<b>Guztira</b>	<b>339</b>

<b>Zergak ez diren beste kontzeptu batzuk</b>	
Ordezko betearazte	1
Beste Batzuk	2
<b>Guztira</b>	<b>3</b>

## 6. EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK

Alde horretatik, zergen arloko erreklamazioak ebaztearen azterketa espezifikoa, auzitegiak eutsi egiten dio sortu zenetik —2005eko ekainetik— izandako irizpideari, hots, zerga-egitatei buruz eta zirkulazioko zehapenak biltzeko prozedurari ez dagokion eskubide publikoko edozein diru-sarrerari buruz eginiko erreklamazioak berehala ebazteko irizpideari.


Erreklamazio horiek berehala ebazten dira; eta zirkulazioko zehapenetako nahitaezko diru-bilketako prozedurei dagozkienak, iritsitako ordenari jarraituz izapidetzen dira, ordena hori baita legez errespetatu beharrekoa, prozedura horiek ebazteko orduan.

Zerga gaietako berehalakotasun hori egiaztatu da: 2016an 83 zerga erreklamazio aurkeztu ziren eta 38 epai eman ziren. 44 erreklamazio ebatzi ziren, hainbat erreklamazio metatzeagatik, horietatik 26 epaitza iaztik ebazteke zeuden erreklamazioei dagokie eta abenduaren 31n 75 erreklamazio geratzen ziren ebazteke.

Eta estatistika egitean auzitegiak dituen hamar urte eta erdiko aldi osoaren ikuspegia hartzen badugu, aurkeztutako 11.088 erreklamazioetatik, 2016ko abenduaren 31n, aurkeztutako erreklamazioen %89,49 zegoen ebatzita.

1.165 erreklamazio zeuden ebazteke, hau da, aurkeztutako erreklamazioen %10,51.

IFK/C  
IF  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
8625n  
II2005  
-06



Grafiko horretatik ondorioztatzen da Auzitegiaren lana beti izapidetze- eta ebazte-erritmo bertsuan egin dela.

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari kontu eskatutako Auzitegiaren epaitzekiko gatazkei dagokienez, honako datu hauek eman dira:

Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetan ebatzitakoak

**2005-2016**


Epaitza baietsleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren erabakia baliogabetzen dutenak)	9
Zatika baietsitako epaitzak	6
Epaitza ezetsleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren erabakia berresten dutenak)	22
Atzera eginak	5
Auziak prozesutik kanpo betetzea	5
EZ-ONARTUAK	2
Ebazteke direnak	10
<b>Guztira</b>	<b>59</b>

**7. EBAZTEKE DIREN ERREKLAMAZIOAK**

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, 1.553 erreklamazio ziren ebaztekoak. Haietatik 1.128 ziren 2015. urtetik ebazteke zeuden erreklamazioak, eta 425 ziren 2016an aurkeztutako erreklamazioak.

Erreklamazio horietatik, 388 erreklamazio ebatzi dira 2016an, eta 2016ko abenduaren 31n, 1.165 erreklamazio daude ebazteko.

Auzitegia eratu zenetik 2016eko abenduaren 31 arte egindako lanaren zenbaketa osoa hartuta, denbora horretan aurkeztutako 11.153 erreklamazioetatik, 9.923 espediente ebatzi dira, hau da, erreklamazioen % 88,97k badu epaitza.



IFK/C  
IF  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
8625n  
112005  
-06

## 8. EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN


Grafiko hauetan ageri da emandako epaitzak zein aldetarantz izan diren: baietsiak, zati batean baietsiak, ezetsiak eta onartezinak. Multzo horietako bakoitzaren kopurua zehaztu da.

	<b>Ezestea</b>	<b>Baiestea</b>	<b>Zati bat baiestea</b>	<b>Onartezina</b>	<b>Guztira</b>
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	5	-	-	-	5
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	5	3	-	1	9
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	-	3	-	-	3
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	4	4	1	-	9
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	3	-	-	-	3
Jabari publikoa	4	-	-	1	5
Zerbitzu-Tasa	3	-	-	-	3
TAO tasa	1	-	-	-	1
<b>Guztira</b>	<b>25</b>	<b>10</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>38</b>


IFK/C  
IF  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
8625n  
II2005  
-06

<b>Sentido de los fallos de cobro de sanciones</b>			
	<b>Apremio</b>	<b>Embargo</b>	<b>Total</b>
Baiestea	2	1	3
Zati bat baiestea	-	19	19
Ezestea	76	247	323
Onartezina	3	2	5
<b>Guztira</b>	<b>81</b>	<b>269</b>	<b>350</b>


Zirkulazioko zehapenen nahitaezko diru-bilketako prozedurako erreklamazioetan, ezestekoak dira erreklamazio gehienetako epaitzak.



Hurrengo grafikoetan, urte horietako epaitzen noranzkoen arteko aldeak bistaratzeko dira.





### 2014ko EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREZ



IFK/C  
IF  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
8625n  
II2005  
-06

### 2015eko EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREZ





IFK/C  
IF  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
8625n  
II2005  
-06

## 9. AUZITEGIAREN IRIZPIDEAK

Xede berarekin aurkeztutako erreklamazioak ebaztean, auzitegiak, aurreko ebazpenetan adierazitako irizpideei lotzearen Konstituzio doktrinari jarraituz, ratio decidendi berbera erabili du, zuzenbideko oinarrietan zehaztuta. Eta zuzenbideko oinarri horiek erabiltzen jarraitzeko asmoa du, oraingoz, aurkezten zaizkion kasuetan egitateen edo zuzenbidearen funtsezko aldaketarik izan ezean; izan ere, zuzenbideko oinarri horiek zuzenbidearen arabekoak direla baiteritzogu.



## 10. AURKEZTUTAKO GATAZKEI BURUZKO IRUZKINAK


Auzitegi honetan aurkezten diren gatazkak, ez dira aurkezten interesdunek erabaki dutelako bide hori hartzea, berraztertze errekurtsoarekin Udalarengana jo beharrean; hala balitz, berraztertze errekurtsoak ebatzen dituzten udal-organoen erabakiak ordeztu dituen organo bihurtuko litzateke auzitegi hau. Baina ez da hala, zeren eta udal-administrazioarekiko diru erreklamazioen %90 berraztertze errekurtsoa ezetsi delarik egiten dira, direla zehapenak betearazteko prozedurenak, edo direla udal-zergenak.

Lan-kargak handia izaten jarraitzen du, izapidetzen diren zehapenak betearazteko prozeduretan.

Grafikoetatik ondorioztatzen da, zerga-erreklamazioetako gatazkei dagokienez, erreklamazioak udal-zerga guztiei buruzkoak izan direla: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga; Eraikinen gaineko Zerga; Ibilgailuen gaineko Zerga; Uraren Tasa, Zaborrak Biltzeagatik Tasa, Jabaria aldamiokin okupatzeagatik Tasa; eta Garabi Tasa.

Emandako epaitzen diru-ondorioek, urte hauetan guztietan, erreklamatuak zehapenak ezeste-maila bertsuan dira.

	<b>2013ko epaitzak</b>	<b>2014ko epaitzak</b>	<b>2015eko epaitzak</b>	<b>2016ko epaitzak</b>
<b>Erreklamatuak</b>	1.058.049,12 €	544.725,69 €	477.467,24 €	519.415,01 €
<b>Baietsiak</b>	212.536,74 €	117.464,01 €	21.501,30 €	54.201,68 €



## 11. UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

Ondorengo informazioa eta ondorioak urtez urte egiten ditu Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek, “*Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales*” izenburuko txostenean.

*Ebazte-Tasak* adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, urtero, aurkeztu diren erreklamazioen aldean (urteko ebaztiak / urteko sartuak).

Eraitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du sartutakoak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, sartutakoak baino gutxiago.

*Eraginkortasun-Tasak* adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebatzen diren, erreklamazio guztien aldean (urteko ebatziak / urteko guztiak).

Eraitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du urteko erreklamazio guztiak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, erreklamazio guztiak baino gutxiago.

*Ebazteke dagoenaren Tasak* neurtzen du zenbat urte beharko lirartekeen urte bukaeran ebazteke diren espedienteak ebazteko (abenduaren 31n ebazteke diren espedienteak / urteko ebatziak).

*Ebazte-abiadurak* neurtzen du zenbat urte behar diren espediente bat ebazteko (urteko guztiak / urteko ebatziak).

## DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO ERREKLAMAZIOAK

	<b>ERREKLAMAZIOAK</b>	<b>2016</b>	<b>2015</b>	<b>2014</b>	<b>2013</b>
1	Urtarrilaren 1ean ebazteke	1.128	1.608	1.536	1.726
2	Urtean aurkeztuak	425	486	1.205	1.198
3	Urteko guztizkoa (1+2)	1.553	2.094	2.741	2.924
4	Urtean ebatziak	388	966	1.133	1.388
5	Abenduaren 31n ebazteke (3 -4)	1.165	1.128	1.608	1.536

## DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ANALISIA

Urtea	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Abiadura
<b>2013</b>	115,86	47,47	1,11	2,11
<b>2014</b>	94,02	41,34	1,42	2,42
<b>2015</b>	198,76	46,13	1,17	2,17
<b>2016</b>	91,29	24,98	3,00	4,00

IFK/C  
IF  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
8625n  
II2005  
-06

## 2015eko ZIFRAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

2015	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Ebazte-abiadura
<b>Sevilla</b>	129,04	24,95	3,00	4,01
<b>Madril</b>	117,45	52,03	0,92	1,92
<b>Malaga</b>	112,24	75,81	0,32	1,32
<b>Donostia</b>	198,77	46,13	1,17	2,17
<b>Valentzia</b>	87,46	58,83	0,70	1,70
<b>Bartzelona</b>	95,45	85,50	0,17	1,17
<b>Bilbo</b>	155,18	74,00	0,35	1,35

Mila biztanleko urtean aurkeztutako erreklamazioen kopurua konparatzen da, dagokion urteko urtarrilaren leian udal bakoitzak duen biztanle kopurua hartuta, Espainiako Estatistika Erakundeak argitaratutako datuekin.

**AZTERKETA KONPARATUA:  
erreklamazioak, 1.000 biztanleko**

	<b>2015</b>	<b>2014</b>	<b>2013</b>	<b>2012</b>
	<b>Erreklam./mila biztanle</b>	<b>Erreklam./mila biztanle</b>	<b>Erreklam./mila biztanle</b>	<b>Erreklam./mila biztanle</b>
<b>Sevilla</b>	4,18	5,34	7,36	9,31
<b>Madril</b>	1,64	2,06	2,74	3,11
<b>Malaga</b>	0,95	1,3	1,26	1,40
<b>Donostia</b>	2,61	6,47	6,42	10,93
<b>Valentzia</b>	1,10	0,98	1,33	0,71
<b>Bartzelona</b>	1,34	0,21	0,27	0,11
<b>Bilbo</b>	0,86	1,57	3,86	3,10

**12. ESKATUTAKO IRIZPENAK**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.b) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1.1 artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio zerga-ordenantzen proiektuei buruz irizpenak ematea.

2016ko uztailaren 19an, Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariak zerga ordenantzen proiektuei buruzko irizpena eskatu zion Auzitegiari, 2017rako zerga ordenantzen aldaketa jasota.

Proposamenek zergapetze tasa edo zerga kuotak aldatzea dakarte, 2017ko ekitaldirako zerrendatzen diren zerga hauek direla eta:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, Eraikenen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga, Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga, Udalaren jabari publikoa okupatzeagatiko Tasak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuak Udalaren Bide Publikoetan aparkatzeagatiko Tasak, Lokalak irekitzeko eta bertan jarduerak burutzeko ematen diren Lizentziei dagozkien Tasak, Zerbitzuak Emateagatiko eta Udal Jarduerak Egiteagatiko Tasa, Estolderi zerbitzuari dagokion tasa, Zaborra biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa eta Ibilgailuak Ibilgetzeko eta Bide Publikotik Kentzeko Zerbitzua Emateagatiko Tasa.

Auzitegiak, 2016ko uztailaren 29an egindako bileran, eskatutako irizpenak eman zituen. Proposamenen aldeko irizpenak izan ziren.

### 13. ONDORIOAK

Azterketa honetatik nabari da auzitegi honek jarraitzen duela auzitegia ezartzearekin lotu nahi zen helburua betetzen: herritarren zerbitzura diharduen doako tresna izatea, zuzenbideko profesionalak esku hartzea eskatzen ez duena; eta Udalarentzako hobekuntza elementu bat izatea, eguneroko kudeaketa egitean ihes egiten dioten okerreari antzemanaz.

2016an eginiko estatistiketan, bere horretan dirau datu honek: gatazka gai masibo izaten jarraitzen dute zirkulazioko zehapenekin eginiko betearazte-prozeduren erreklamazioek. Bestetik, Gizabideari buruzko Ordenantzako zehapenen aurkako erreklamazioak hasi dira.

2016an Auzitegiak bere kideetako zenbait berritu ditu: Juan Santos jaunak kargua utzi, eta Maite Amunarriz andreak ordezkatu du. Auzitegiaren Idazkaritza, behin-behinean, Ondare eta Kontratazio Zerbitzuaren buru berriak beteko du; hau da, Nekane Ruiz Larrea andreak.

Oraindik ere informatikako dema dugu, auzitegiko idazkaritzarako, prozeduraren izapideak informatizatzea, Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari buruzko Araudia eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua (2007ko ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoz erabiltzearena) onartu zirela eta.

Informatizatzea lortuz gero, hurrengo aldira iritsiko ginateke: interesadunek baliabide informatikoak erabili ahal izango lituzkete, erreklamazioak aurkezteko, eta auzitegiko idazkaritzak sistema horren bidez jakinarazi ahal izango lituzke izapide, ebazpen eta epaitzak.

Donostia, 2017ko apirilaren 28a.

Auzitegiko idazkaria

Auzitegiko lehendakaria

Sin.:Nekane Ruiz Larrea

Sin.: Javier Herrero Aparicio.